

## V - BESTELAKOAK

### FUNDACIÓN KIROLARABA FUNDAZIOA

#### Goi mailako kirolari federatuei bekak emateko oinarriak

##### Lehena. Gaia

Oinarri hauen helburu da Fundación Kirolaraba Fundazioak arautzea gorengo kategorietako kirolari federatu arabarrei beken ematea, kirol arrakasta lortzeagatik 2015eko irailaren 1etik 2016ko irailaren 30era bitarteko epean.

Eliteko eta/edo goi mailako jardueretan parte hartzeagatik eragindako gastuak finantzatzeko dira laguntza horiek, lortutako kirol arrakastagatik.

Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuaren bidez (ALHAO, 123. zk., 2015eko urriaren 21ekoa) arautuko da deialdi hau. Foru dekretu horren bidez, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren eskumen esparruan, lehia bidez emango diren dirulaguntzei aplika dakizkiekeen oinarri-arau orokorrak eta oinarri bereziak onartu ziren.

##### Bigarrena. Dirulaguntzen zenbatekoa

Laguntza hauetarako aurrekontua 2016an, guztira, 18.000,00 eurokoa da.

Eutsi egingo zaio aurreko idatz zatian adierazitako zenbatekoari, baldin eta Fundazioak aurrekonturik badu 2016an, eta handitu egin ahal izango da, deialdia ebatzi baino lehen.

Fundación Kirolaraba Fundazioak ez du zertan aurrekontu guztia agortu derrigorrean.

##### Hirugarrena. Erakunde onuradunak eta baztertuak

1. Laguntza horien onuradun izango da, nork bere kirolean, estatuko, Europako, Munduko txapelketetan edo Olinpiar Jokoetan jardun duen kirolari federatu arabarra.

Horrelako kirol jardueratzat honako hauek hartuko dira: kasuan kasuko kirol federazioetan jasotako kategoria guztietako Espainiako, Europako eta/edo munduko txapelketetan azken fase ofizialak, 2015eko irailaren 1etik 2016ko irailaren 30era bitartean, dagokien federazioak antolatuak baldin badira.

Lehiaketa hauek kirol bakoitzean lehiatzeko maila gorenarekin egiten direla ulertuko da. Beraz, kanpoan geratuko dira "B mailako txapelketak, 2. mailako txapelketak eta abar" gisako lehiaketak.

2. Ez dira eskaera hauek onartuko:

- Kirol probak, baldin eta seigarren oinarrian agertzen diren postuak lortu ez badira.
- Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Dirulaguntzenak, IV. tituluan araututako arau hausteren bat dela-eta zehatuak izan diren kirolarienak, bai eta Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, jasotakoren bat egiten dutenenak edo kirol arloko besteren bat (dopina eta abar).

##### Laugarrena. Eskaerak aurkeztea

1. Eskaerak Fundación Kirolaraba Fundazioaren Patronatuari zuzendu beharko zaizkio, honekin batera dagoen eranskinean adierazten den ereduari lotuta, eta Fundazioaren gizarte egoitzan aurkeztu, Arabako Kirolaren Etxean (Zerkabarren, 5, behea. PK: 01001 Gasteiz).

2. Nahitaez zehaztu behar da jakinarazpenetarako egoitza.

3. Laguntza hauek eskuratzeko eskaerak aurkezteak oinarri hauetan ezarritakoa formalki eta berariaz onartzen dela esan nahi du.

4. Kirolari berak txapelketa baten baino gehiagotan parte hartzeagatik eskaera bat baino gehiago aurkezten badu, puntu gehien lortu dituen txapelketari buruzko eskaera baino ez zaio aintzat hartuko.

Ez dira onartuko hurrengo 5. idatz zatian zerrendatzen diren datu eta agiri guzti-guztiak jasotzen ez dituzten eskabideak.

Hala ere, aurkeztutako datu edo agiri horietakoren bat osorik ez badago edo nahikoa ez bada, Fundazioak beretzat gordetzen du eskaera aurkeztutako datuekin ebazteko, eskaera arxibatzeko edo kasuan den akatsa zuzentzeko aparteko epea emateko eskubidea.

Laguntza eskaera bat izapidetzea onartzeak ez du dirulaguntza emateko konpromisorik eragiten.

5. Laguntza deialdi honetara parte hartu nahi duten kirolari interesatuek ondoko datu multzo hauek aurkeztu beharko dituzte, adierazten den moduan:

- a) Dirulaguntza eskaeraren helburu diren probei buruzko datuak.
- b) Fundazioak publizitatean duen presentzia.
- c) Errolda ziurtagiria.

a) Dirulaguntza eskaeraren helburu diren probei buruzko datuak:

Dagokion federazioak egindako ziurtagiria, bakarrik laguntza eskaeraren helburua den jarduerari eta/edo goi-mailako kirolariari buruzkoa. Datu hauek jaso behar ditu:

- Kirolari eskatzailea
- Lehiaketaren izena
- Lehiaketa non egingo den
- Lehiaketa maila
- Lehiaketa data.
- Lortutako postua.

b) Fundazioak kirolariaren publizitatean duen presentzia

Dirulaguntzaren onuradunak hau aurkeztuko du 2016ko abenduaren 15ean aurkeztu beharreko agirien artean: beka ematen denetik 2017ko urriaren 1era arte kirol jantzi ofizialean Fundazioaren publizitatea eraman dela egiaztatzen duen agiria.

Beren taldearekin eta/edo nazio selekzioarekin lehiatzen diren kirolariak Fundazioaren irudiarekiko bestelako publizitatea proposatu beharko dute (sare sozialetan, entrenamenduetako arropetan, eta abarretan...).

c) Errolda ziurtagiria.

Errolda ziurtagiria aurkeztu beharko dute, frogatzeko Arabako Lurralde Historikoko udalerrietako edozeinetan erroldaturik egon direla deialdian eskabideak aurkezteko ezarritako epea amaitu baino 3 urte lehenagotik gutxienez, etengabe.

Fundazioaren publizitatea eramatea egiaztatzen duen agiririk ez aurkeztea arrazoi izan liteke laguntza beka behar izateko.

#### **Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea**

Oinarri hauek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da eskaerak aurkezteko epea, eta 2016ko urriaren 10ean bukatuko da (egun hori barne).

#### **Seigarrena. Laguntzak emateko irizpideak**

1. Hirugarren oinarriak jasotzen dituen eta diruz lagun daitezkeen jarduera guztien laguntzetarako irizpideak haztatzeko eta laguntzok eman ahal izateko, irizpide hau izango da kontuan,

hau da, laguntza xede diren goi mailako kirolarien kirol arrakastaren datua baino kontuan hartzen duen irizpide hau:

LEHIAKETA MOTA	PUNTUAK
JOKU OLINPIKOAK	
1. Sailkatua	100
2.	95
3.	90
4. eta 8. bitartean	85
Partaidetza	80
MUNDUKO TXAPELKETA	
1. Sailkatua	70
2.	65
3.	60
4. eta 8. bitartean	55
EUROPAKO TXAPELKETA	
1. Sailkatua	35
2.	30
3.	25
4. eta 5.	20
ESPAINIAKO TXAPELKETA	
1. Sailkatua	15
2.	10
3.	5

“Lortutako postua” idatz zatian lortutako posturik onena baino ez da balioetsiko eskaera guztietan.

Laguntzak banatzeko, puntuazioen arabera banaketa sistema bat erabiliko da. Horretarako, eragiketa hau egingo da: bigarren oinarrian zehaztutako zenbatekoa zati eskatzaile guztiek lortutako puntuen guztirako batura, horrek emango digularik puntuaren balioa. Laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, puntuaren balioa eta eskaera bakoitzaren puntu kopurua biderkatu behar dira.

Eman beharreko zenbatekoa zeinahi dela ere, muga bat izango da kirolari eskatzaileko: 2.500 euro.

Aurkeztutako datuen (2015eko irailaren 1etik 2016ko irailaren 30era arteko epealdiari dagozkionak) arabera emango dira laguntzak. Laguntza horiek jaso izana ez da arrazoi izango etorkizunean ere beste batzuk jaso ahal izateko.

Egiaztatzen ez diren datuak ez dira balioetsiko.

Fundazioak eskubidea izango du laguntzak eskatzen dituztenek emandako datuak egiazkoak diren egiaztatzeko. Fundazioak egiaztatu egiten badu datuak faltsuak direla, eskatzaile horiek ez dute parte hartuko hurrengo deialdietan, eta itzuli egin beharko dute jasotako diru kopurua, hala badagokio.

**Zazpigarrena.- Eskabideak aztertu eta ebatzea**

1. Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta gero aztertu eta ebatziko da laguntza eman ala ez.
2. Espedientea aztertuta, kide anitzeko organo batek egingo du dirulaguntza proposamena, hau da, Fundazioko Patronatuak hautatutako iru pertsonak osatutako kide anitzeko organo batek.  
Kide anitzeko organoak behin betiko ebazpen proposamena egingo dio Fundazioko Patronatuari.
3. Behin betiko ebazpen proposamena ikusita, Fundazioaren patronatuaren lehendakariak ebatzi egingo du deialdia.  
Ebazpena aldekoa bada, adieraziko da zenbat laguntza emango den, nola eta zein baldintzatan ordainduko den; eta berariaz jaso beharko da, hala badagokio, gainerako eskaerak ezetsi egin direla, baita horren arrazoia ere.
4. Ebazpen horren berri emango zaie, jarraian, kirolari eskatzaileei, adieraziz hilabeteko epean, hura jasotzen denetik aurrera, espedientea haien eskura egongo dela aztertu ahal izateko, eta epe horretan egokitzat jotzen dituzten alegazio guztiak aurkeztu ahal izango dituztela.
5. Fundazioaren patronatuaren lehendakariak bi hilabeteko epean ebatziko ditu aurkeztutako alegazioak. Ebazpen honek jardunbideari amaiera emango dio, eta ondoren ez da alegaziorik onartuko.

**Zortzigarrena. Laguntza ordaintzea**

Deialdia ebatzi ondoren ordainduko da laguntza, eskaerarekin batera adierazitako justifikazio agiriak aurkeztuko baitira.

**Bederatzigarrena. Publizitatea**

1. Deialdi hau ALHAOn iragarki bat jarrita emango da argitara. Era berean, fundazioaren web orrian ere jarriko da ikusgai: [www.kirolarba.eus](http://www.kirolarba.eus)
2. Deialdi honetako dirulaguntzen erakunde onuradunak behartuta daude adieraztera diruz lagundutako jarduerari buruzko argibide, publizitate eta propaganda orotan Fundación Kirolaraba Fundazioak babesa eman duela berariaz eta modu argian; edonola ere, laguntza ematen zuen ebazpenean zehazten ziren baldintzetan egingo da hori.

**Hamargarrena. Interpretazioa**

Oinarri hauek interpretatzean edozein zalantza egonez gero, Fundación Kirolaraba Fundazioak argituko du.

**Hamaikagarrena. Datu pertsonalen babesa**

Datu pertsonalen babesaren gaian indarrean dagoen arautegia betez, jakinarazten dizugu laguntzen onuradunei edo ordezkariari buruzko datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean jasoko direla, laguntza hauen kudeaketak berekin dakartzan eginkizun eta lanak gauzatzeko. Fitxategi horren berri eman zaio Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Erregistroari, eta datu pertsonalen erabateko segurtasuna bermatzeko behar diren segurtasun neurri guztiak ditu. Datuak eskuratzeko, ezabatzeko, zuzentzeko eta aurkatzeko eskubideak erabili ahal izango dituzu, fundazio horren bulegoan.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko maiatzaren 3a

*Kirolaraba Fundazioaren Patronatuko presidentea*  
**IGONE MARTÍNEZ DE LUNA UNANUE**